



| | | |
|--|--|----------------------|
| Berdintasun Zerbitzua | | Getxoko Udala |
| Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BATZARRA | | |

Batzarraren datuak:

Data: 2013-10-23 Lekua: Santa Klara Jauregia Ordua: 17:00etatik
19:00etara

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo
Enclave de ciudadanas por Getxo: Charo De la Peña
Eskuz-Esku: Isabel Perez
Gizatiar: Maite Egia, Marisa Pedrero
Emakumeen Ahotsa: Luciana Gomez Davies
Roda: Clara Lorenzo
Talde Popularra: Ana Basilio
Bildu: Maitane Nerekan
EAJ-PNV: Elena Coria
Lehendakaritza: Keltse Eiguren
Idazkaritza: Arantza Cabeza

Etorri ez direnak:

Udaleko Talde Sozialista
Getxo Enpresa
ELA

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea
- Azaroaren 25eko jarduerak
- Galde-eskeak

Santa Klara udal eraikineko batzar-gelan, 2013ko urriaren hogeita hiruan.

Egun horretako arratsaldeko bostetan elkartu zen Berdintasun Batzordea; goiburuan zerrendatutako pertsonak bertaratu ziren, alde zurretik egindako deialdiko Gai-zerrendan jasotako gaiak lantzeko.

Berdintasun Arloko Zinegotziak eman dio hasiera batzarrari, Berdintasun Teknikaria ezin dela etorri azalduz, osasun arrazoiengatik; beraz, ordeko teknikaria etorri denez, Batzordeko kideei euren burua aurkez diezaietela proposatu du: Marisa Pedrero etorri da Gizatiar-eko titularra den Begoña Fernandez de Agirre Andrearen ordeztu eta, berarekin batera, Maite Egia, bigarren ordezkoa. Jarraian, alde zurretik egindako deialdiko Gai-zerrendan jasotako gaiak aztertzeari ekin zaio.

AURREKO AKTA ONARTZEA

Aldaketatik gabe onartu da 2013ko irailaren 12ko batzarrari dagokion akta.

AZAROAREN 25EKO JARDUERAK

Berdintasun Arloko Zinegotziak jakinarazi du, azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, EUDELeK adierazpen instituzionaleko Eredu bat ematen dietela euskal udalei; aurten ere Beldur Barik! ekimenaren eta Berdintasunaren aldeko Euskal Udalen Sarearen barruan landu da adierazpen hori.

Adierazpen hori berretsi egin berri du EUDELen Zuzendaritza Batzordeak, urriaren 17an, osteguna, ospatutako batzarrean, euskal udalei atxikitzeko erreferentziazko eredu gisa bidaltzeko (ostiralean jaso genuen); ondoren, Zinegotziak irakurri die adierazpen hori bertaratuei.

Adierazi du testua gobernu taldeak onar dezakeela, baina, beti bezala, Batzorde honetan partekatatu nahi dutela. Hilaren 26an egingo den azaroko Osoko Bilkuraren batzarrera eramateko asmoa dago eta honakoa da prozedura: bozeramaileen batzordeari deialdia egitea, batzorde horrek bere irizpena ematea adierazpen bat bere eginez eta osoko bilkurara eramateko erabaki bat hartzea

Kasu honetan, arreta berezia jarri nahi da eraso sexualengan, bereziki, gazteek sufritzen dituzten erasoengan.

Gainera, EUDELeK jakinarazi du, Beldur Barik ekimenaren 2013ko programaren barruan, hainbat ekimen antolatuta direla, tartean, nabarmentzekoa da Beldur Barik Topaketa, urtero gazteekin egiten den topaketa eta egitarauari amaiera eman ohi diona; aurten, azaroaren 30ean ospatuko da, Basaurin.

Berdintasun Arloko Zinegotziak emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren ospakizunen barruan egingo diren jardueren errepassoarekin jarraitu du:

OSTIRALA, 15 ETA LARUNBATA, 16

Emakume gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra

Prestatzailea: Maitena Monroy

Ostiralean, 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

Jabetze eskolan (Martikoena kalea, 16)

Berdintasun Zerbitzuan, berdintasuna@getxo.net helbide elektronikoan edo 94 4660136 telefono zenbakian eman behar da izena.

ASTEARTEA, 19

Indarkeria matxistak denoi eragiten digu: jarduteko jarraibideak.

Hizlaria: Norma Vazquez, psikologoa eta indarkerian eta emakumeen jabetzean aditua

Villamonteko Kultura Etxean, 19:30ean

OSTEGUNA, 28

Genero-indarkeriaren aurkako elkarretaratzea.

Bizkaia Zubiaren Plazan, Areetan, 19:30ean

Antolatzailea: Gizatiar emakumeen elkarte

LARUNBATA, 30

BELDUR BARIK TOPAKETA 2013 (Marienea, Basauri).

Tailerrak, Ekintza kolektiboa, Musika eta Sari-banaketa

Informazio gehiago www.beldurbarik.org webgunean

Antolatzailea: Berdinsarea.

Hautzaindegi zerbitzua behar izanez gero, gutxienez, bi egun lehenago eskatu beharko da.

Halaber, adierazi behar da lila koloreko puntuak jarriko direla ohiko lekuetan: udaletxean, Santa Klara jauregian, San Nikolas Liburutegian, Musika Eskolan...

Zinegotziak aipatu du oraindik badaudela puntu lilak paperean; aurten, postontzietan banatu beharrean, Getxoberri aldizkariaren bitartez jakinaraziko zaie herritarrei nora jo behar duen lila koloreko puntuok hartzera nahi duen pertsona orok.

Zinegotziak jarraitu du hitz egiten eta adierazi du autodefentsa tailerra aurtengo adierazpen instituzionalarekin bat datorrela. Tailerra bi egunetan eta ordutegi ezberdinetan egingo da, biztanleriaren ahalik eta sektore gehienengana iritsi asmoz eta gazteengana hurbiltzen saiatuz.

Emakumeen Ahotsa elkarteko kideak dio arratsaldeko laurretan umeak ez direla oraindik eskoletatik irten; Zinegotziak azaldu du xehetasun hori kontuan hartu dela eta horregatik daudela beste ordutegi batzuk.

EnClave elkarteko ordezkariak galdetu du zela emango zaien gazteei jarduera horren berri; azaldu zaio Getxoberri aldizkariaren bitartez, ohiko puntuetan jarriko diren kartelen bitartez, prentsa-oharrekin, Udalaren webgunearen, posta elektronikoen, gazteria arloaren, gaztelekuaren... bitartez egingo dela hedapena.

Bilduren Udal Taldeko ordezkariak jakin nahi du ikastaroa gaztelera hutsez eskainiko ote den eta, bi egun daudenez, euskaraz eta gaztelera egin litekeela adierazi du; gazteak izanda, uste du ez luketela euskaraz egiteko arazorik izango. Zinegotziak esan du parte hartzen duen taldearen arabera egingo dela uste duela, baina ez dagoela ziur; azaldu du zalantza horren eta ordutegiei, adin-mugei, izena emateko mekanismoei eta beste hainbati buruzko zalantzen berri emango diola Berdintasun Teknikariei, aste honetan ezin baita harekin elkartu, bere gaixotasunagatik. Behin zalantza horiek guztiak argitzen dizkionean, Batzordekide guztiei helaraziko diela informazioa.

Jarraian, Berdintasun Zinegotziak, berak dakiela egin den ekarpen bakarrari buruz hitz egiteari ekin dio (litekeena da beste ekarpen batzuk iritsi izana Berdintasun Teknikariaren helbide elektronikora); ekarpen hori Gizatiar elkartearena da, egun horri garrantzi handiagoa emate aldera, kale-argietan banderatzokak zintzilikatzeko aukerari buruzkoa; Zinegotziak azaldu du momentuz ez dela posible, ordenantza aldatzen ari garelako, bete-betean; inguruabar tekniko-juridikoak direla eta, ez dira era horretako euskarriak onartzen; salbuespen gisa aukera hori onartuko lukeen txosten tekniko bat beharko litzateke eta erabakia banderatzokak jarri nahi diren lekuaren, dimentsioen, altueraren eta abarren pean egongo litzateke.

Gizatiar elkarteak antolatutako elkarretaratzeari dagokionez, azaroaren 25ean bertan egingo ez denez (hilaren 28an izango da), elkarte horretako ordezkariak gainerako elkarteetako ordezkariak eskatu die, euren elkarteetako kideak parte hartzera anima ditzatela. Elkarretaratzearen deialdia Getxoberri aldizkariaren azalean iragartzea proposatu du eta, ahal izanez gero, baita kaleetan jartzen diren dorre batzuetan ere. Zinegotziak aipatu du Getxoberrikoekin hitz egingo duela, baina posibleago ikusten duela orrialde erdi bat eskaintzea edo albiste aipagarrien atalean sartzeta.

Getxo Irratian gai horri buruzko saio berezi bat egitea edo irrati-espote bat sartzeta iradoki du Bilduk. Zinegotziak uste du albisteak bakarrik eskaintzen direla; dena dela, horren berri emango duela esan du eta elkarrizketa edo albiste bereziren bat grabatu eta egun horretan eskaini daitekeela bururatzen zaiola; kontsulta

egingo duela azaldu du, baina jakinarazi nahi du beharrezko esfortzu guztiak egingo dituztela komunikabideetan gai hori isladatzeko.

Bilgune Feministako ordezkariak hartu du hitza eta beste esparru batzuetan ere lan egitea proposatu du, eta ez elkarretaratzera joatea, besterik gabe; uste du lastima dela Udalak Getxoko emakume guztien aldeko lan handiagoa ez egitea eta urte osoari begirako lana egin behar dela irizten dio; ekintza-ildo batekin, apustu sendoa egin eta beste udalerrri batzuentzako erreferentziazko eredu izateko.

Gizatiar elkarteko ordezkariak erantzun dio hori egiten dela, beste alderdi batzuetan ere lan egiten dela eta euren elkarteak izan zela emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna lehenengoz antolatu zuena; eurek antolatzen dutela, baina deialdia emakume guztientzako egiten dela eta euren elkarteak apolitikoa eta konnotazio erlijiosorik gabekoa dela. Deialdian ez da siglarik azaltzen, emakumeenganako indarkeriaren aurka egiten da.

Une honetan, esfortzuei, konpromisoei eta deialdiak elkarrekin egitearen egokitasunari edo, mugimendu horiek indartze aldera, ahalik eta emakume gehien hartuko lituzkeen plataforma batek egitearen komenigarritasunari, berdintasun politikak era parte-hartzailean bideratzeari eta ekimen horietan politika nahastea saihesteari buruzko eztabaida hasi da; Batzorde honen barruan aurretik ere sortu izan den eta aurrerantzean ere sortuko den eztabaida bat da.

Gaia alde batera utzi da eta, seguruena, beste edozein unetan sortuko da berriz ere.

EUDELe helarazitako adierazpen instituzionalaren gaiari berriz helduz, Bilduren ordezkariak galdetu du nora bidal daitezkeen egin nahi diren ekarpenak.

Berdintasun Zinegotziak erantzun dio Berdintasun Teknikariari bidali behar zaizkiola, honek Batzordeko gainerako kideei jasotako ekarpen guztien berri eman diezaien, e-posta guztiak birbidaliz.

Nolanahi ere, gehitu du, adierazpen hori onartuta, historikoki lortu nahi izan dena gizartearengana indar handiagoz iristea izan dela, udalerrri gehienek adiera bakarreko adierazpenarekin. Egindako ekarpenen ondorioz, testu berri bat sortuko balitz, Bozeramaileen Batzordeari aurkeztu beharko litzaioke, haren irizpenerako; horregatik, hori kontuan hartuta, teknikaria lanera itzultzen denetik aurrera, ekarpenak egiteko eta testua ixteko epe bat ezartzea iradokitzen du (esaterako, astebete, gutxi gorabehera), prozesua gehiegi luza ez dadin eta tramitazio guztia egin ahal izateko nahikoa denbora izateko.

GALDE-ESKEAK

Eskuz-esku elkartearen ordezkariak aipatu du, irail amaieran, Rosa Maria Calaf Andreak Portugaleteko Kultura Etxean eskainitako hitzaldira joan zela eta oso pertsona baliotsua dela eta bere aurkezpena oso interesgarria iruditu zitzaioela; horregatik, martxoaren 8ari begira, hizlari hori ekartzea proposatu du.

Agenda oso okupatuta izango duela suposatzen du, beraz, bere proposamena onartzekotan, harekin berehala harremanetan jarri beharko liritekeela uste du.

Bilgune Feministaren ordezkariak "Guía de Buenas Practicas en responsabilidad social de genero" liburua gomendatu du, hainbat ikertzailek egindakoa eta Piramide argitaletxeak argitaratu duena; oraingo astean bertan aurkeztu dute liburua Euskal Herriko Unibertsitatean.

Liburu horren helburua da generozko erantzukizun sozialaren garapena sustatuko duten ekintzen zabalkunderako jarduketara-esparru bat ematea.

Liburua irakurtzea gomendatu du eta azaldu du unibertsitateko hainbat karreratan testuliburu gisa sartzeari buruz ere hitz egin dela.

EnClave elkartearen ordezkariak jakin nahi du ba al dagoen Getxon genero-indarkeriaren biktima izan diren adingabeentzako harrera-etxerik; badaki Sopelan eta Barrikan, adibidez, badaudela.

EAJK ezetz uste du, baina adierazi du litekeena dela egotea eta eurek ez jakitea. Adibidez, badago buruko gaixotasunak dituzten adingabeentzako ospitale bat eta orain dela gutxira arte ez zekiten, horregatik, galdetuko duela adierazi du; kontuan hartu behar da adingabeen babesaren esparruan Aldundia dela erakunde eskuduna

eta bera dela baliabideak non eta nola kudeatu erabakitzen duena; adingabeak tartean dauden gaiak diskrezio handiarekin tratatzen dira. Badaude ezagutzen ez diren gaiak, horiei buruz hitz egiten ez delako, baina, horrek ez du esan nahi lantzen ez direnik.

Gizatiar elkartearen ordezkariak dio ia ez duela oihartzunik adingabeek jasaten dituzten kalteek, oso gutxi hitz egiten dela horri buruz, indarkeria egoeretan defentsarik gabeko kolektiboa den arren.

Alderdi Popularrak ezagutzen ditu era horretako egoera sufritu izan dituzten adingabeekin lan egiten duten erakundeak eta diskrezio handiarekin egiten dutela dio; oso lan garrantzitsua egiten dute.

Eskuz-esku elkartearen ordezkariak dio dauzkagun baliabideei buruzko ezagutza falta handia daukagula ikusten duela: Udala, Aldundia... eta horri buruzko informazio falta; horrela, sarritan, jendeak ez du jakiten nora jo.

Bilgunek dio Martikoenako bulegoan gida oso osatuak daudela eta planteatzen diren galdera horietako batzuei buruzko informazioa eskaintzen dutela.

Adierazpen hauek guztiak eta gai hauek guztiengan eragiten duen kezka kontuan hartuta, Berdintasun Zinegotziak landu beharreko gaitzat iradoki du, martxoaren 8ko egunean egiten diren jardueren barruan horren inguruan lan egiteko. EnClave elkarteak azaroaren 25eko ekitaldien barruan sartzea proposatu du, baina, proposamen hori baztertu egin da, antolatzeko behar adina denbora ez dagoela ikusten delako.

Amaitzeko, Berdintasun Zinegotziak jakinarazi du, azaroaren 25eko nazioarteko eguna dela eta, egun horretan udal liburutegietan banatzeko orrialde-markagailuak editatuko direla, baina ez duela gogoratzen kopuru zehatza.

Gehitu du Berdintasun Teknikariarekin hitz egingo duela batzar honetan sortutako zalantzei buruz eta, behin zalantzok argitutakoan, horien erantzunak posta elektronikoko bidez bidaliko dizkietela.

Beste gairik ez dagoenez, batzarra amaitutzat eman da, arratsaldeko seietan.